



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 1999ko irailaren 17an

3 ZK.

### A U R K I B I D E A

#### B SAILA:

##### **Foru Lege Proposamenak:**

- 1986ko urriaren 10eko Nafarroako Errepideen Babesari buruzko 11/86 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena, «Euskal Herritarrok» Parlamentuko Taldeak aurkeztua (3. or.).
- Foru Lege proposamena, pentsioen kopuruak lanbide arteko gutxieneko soldatarekin parekatzeko osagarriak jarri eta beste laguntza-prestazio batzuk hobetzeko «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentuko Taldeak aurkeztua (5. or.).
- Oinarritzko irakaskuntzarako testu liburua arautzeko Foru Lege proposamena «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentuko Taldeak aurkeztua (7. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, Mozioak eta Adierazpen Politikoak:**

- Mozioa, 2000. urteko uztailaren 25a Nafarroako Foru Komunitatean jai ofiziala izan dadin, «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentuko Taldeak aurkeztua (10. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- A-15 autopista pribatizatzeke asmoari buruzko galdera, Félix M<sup>a</sup> Taberna Monzón Foru Parlamentario jaunak egin (11. or.).
- Martzilla, Funes eta Villafrancako dermioetan zentral hidroelektriko bat sortzeari buruzko galdera, Félix M<sup>a</sup> Taberna Monzón Foru Parlamentario jaunak egin (12. or.).
- Buruaz beste egiteko jokaerei eta adimen gaixoen atentzioari buruzko galdera, M<sup>a</sup> Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentario andreak egin (12. or.).
- Nafarroako Gobernuak sozietate publikoekin eta parte hartutako enpresekin dituen harremanei buruzko galdera, José María Aierdi Fernández de Barrena Foru Parlamentario jaunak egin (14. or.).

**G SAILA:**

**Deialdiak, Iragarkiak eta Parlamentuko Informazioa:**

—Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren 1999ko abuztuaren 3ko erabakia. Haren bidez, Nafarroako Parlamentuko egoitzak garbitzeko zerbitzua esleitu da (15. or.).

**H SAILA:**

**Bestelako testu arau-emaileak:**

—190/1999 Foru Dekretua, ekainaren 7koa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena (16. or.).

—257/1999 Foru Dekretua, uztailaren 19koa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena (20. or.).

—Nafarroako Parlamentuak izendatu behar dituen Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Gizarte Kontseiluko kideak hautatzeko arauak (21. or.).

---

**B Saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

## **1986ko urriaren 10eko Nafarroako Errepideen Babesari buruzko 11/86 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko irailean 13an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

"Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, «Euskal Herritarrok» Parlamentuko Taldeak 1986ko urriaren 10eko Nafarroako Errepideen Babesari buruzko 11/86 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Bozeramaileen Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

**Lehena.** 1986ko urriaren 10eko Nafarroako Errepideen Babesari buruzko 11/86 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkarian argitara dadin agintzea.

**Bigarrena.** Foru Lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 1999ko irailaren 14an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **1986ko urriaren 10eko Nafarroako Errepideen Babesari buruzko 11/86 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena.**

#### ZIOEN AZALPENA

Nafarroako gizartearen gehiengoak era askotara agertu du bidesaririk gabekoak eta Nafarroako erakunde publikoek zuzenean kudeatutakoak izan behar dutela ibilgailuentzako bide guztiak –errepideak, autobideak nahiz autobiak izan–. Egia esan, bai gure lurraren tradizioa –beti bide irekiak eduki baititugu– eta bai modernizazioa bera ere bidesarien sistema gainditzea galdatzen ari dira.

Halaber, hainbat udal eta herritarren elkartek ere aldarrikatu izan dute komenigarria dela gure lurraldeko autobideak bidesaririk gabeko eta irazkor bihurtu behar direla.

Zeharka bada ere, bidesaria ordaindu behar izateak arriskuak sortarazten ditu trafiko handia dagoen zenbait errepide-tartetan; hala gertatzen da, esate baterako, Iruña-Tafalla tartean: bidesariak kentzeko beste arrazoi bat da hori. Azkenik, herritar guztiak legearen aurrean berdinak izatearen printzipioak ere eskatzen du gure lurraldean bidesariak kentzea eta hondarretan gelditu zaizkigun autobide tarteak irazkor egitea; hain zuzen ere, haiek aspaldian eraiki izanak ezin baitu justifikatu bidesariak mantentzea, are gutxiago kontzesioaren hasierako epeak luzatuta. Are justifikaezina goa da hori aintzat hartzen badugu kontzesio-hartzaileen –eta zehazki AUDENASAREN– finantza-arazoak kudeaketaren ardurari zor zaizkiola.

Hori guztia dela eta, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak, Nafarroako gizartearen gehiengo baten sentimendua jasoz, 1986ko urriaren 10eko Nafarroako Errepideen Babesari buruzko 11/86 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu dio Nafarroako Parlamentuari. Aurkeztu dugun lege proposamenak, modernizazioaren irizpideez gainera, Tafalla-Iruña eta Berriozar-Irurtzun errepide-tarteetan A-15 autobideak sortarazten dituen arrisku-baldintzak gainditu nahi ditu; izan ere, autobidea irazgaitza eta bidesaria ordaindu beharrekoa izateak trafiko handia ekartzen baitio errepide nagusiari, eta horrek –aurreikusitako aldaketa hauxe egin ezean– arrisku gaindiezinak sortzen ditu.

Gainera, Imarkoingo "Garraioaren Hiria" izenekoak sortu izana eta zenbait industrialdetarako sartu-irteteko zailtasunak konponbiderik gabeko arazoak dira Nafarroako autobideak irazkor eta doako bihurtu ezean. Aipatu arriskuak saihestea da lege proposamen honen helburu nagusia.

Bestalde, ondasun publikoez gozatzeko garaian nafar guztiak berdinak izateak zera dakar berekin: bidesariak kentzea foru lurralde osoan, egin diren eta eginen diren autobia eta autobide guztietan, betiere inongo lurralde edo herri kaltetu gabe bidesariak kentzeko garaian mugarik edo murrizketarik jartzeagatik.

Aurreko guztiaz gainera, Errepideen Babesari buruzko Legeak ez dio behar duen garrantzia ematen bideak babesteari; bideak –altxonbideak, iturriak eta herri eta hirietako kaleetako trazadura bezala– iraganeko bizimoduaren eta komunikazioaren funtsezko lekukoak dira. Kultur ondare hori mantentzeak, altxonbideak mantentzeak bezala, haien finkapen eta zehaztaperen kartografikoa egitea eskatzen du. Helburu hori erdiesteko, hala ere, aurretik arau bat, ikerketa eta plangintza lan bat, prestatu behar da, Plan bat alegia; horixe da arlo horretan proposatzen duguna. Lurzati kontzentrazioek, gero eta hiri-lur gehiago izateak, ibilgailuen trafikorako basabideek... arriskuan jarri dute bide tradizionalen babesia. Bide horietako bakoitzean gure iraganaren adierazle ugari daude; etorkizunerako, ordea, senderismorako eta bestelako kirol eta jolas jardueretarako toki garrantzitsua izanen dutela aurreikus daiteke.

Azkenik, Errepideen Babesari buruzko Foru Legea aldatzea gero eta garrantzitsuagoa da herritarren eskubideak defendatuko badira; hain zuzen ere, erabiltzaileen igurikapen garrantzitsu horixe da aldatzea proposatzen dugun arau horretan falta dena.

## ARAU-TESTUA

**1. art.** Nafarroako Errepideen Babesari buruzko 11/86 Foru Legeko I. tituluar beste artikuluko bat gehitzen zaio; haren zenbakia 2.a bis izanen da.

### 2.a bis art.

1) Nafarroako Ibilgailuen Trafikoko Foru Sarea osatzen duten errepide, autobide eta autobia guztiak titulartasun publikokoak dira, bai jabari publikoko eremuari dagokionez, eta bai murriztapeneko eremuei eta komunikabide horiek eragina duten eremuei dagokienez ere.

2) Nafarroako errepide, autobide eta autobien erabilera eta sarbideak doakoa eta bidesaririk gabekoa izanen da herritar guztientzat.

3) Foru Parlamentuari dagokio bere garaian ustiakuntzarako emaniko administrazio-kontzesioak berreskuratzeko baimen politikoa ematea.

**2. art.** II. tituluko 1. kapituluaren beste artikuluko bat gehitu da; haren zenbakia 2.a bis izanen da. Hona testua:

### 11.a bis art.

A) Errepideak ezin izanen dira oztopo eta ez banalerro izan dauden lurraldean; lagungarri izan behar dute, ordea, haren garapenerako eta ongi-zaterako.

B) Hori dela eta, errepide berri baten proiektua egin eta errepidea bera egiten denean, edo dagoen errepide bat berritzen denean, haren oinarritzko helburuetako bat zeharkatzen duen lurraldeari zerbitzua ematea izanen da; horretarako, behar dituen lotune guztiak izanen ditu inguruan diren herriguneetara, jarduera-zentroetara eta abarretara iristeko, bai eta sareko gainerako errepideetara ere.

C) Errepidearen diseinu eta kategoria arrazoiak direla medio, toki errepideak, bideak, altxonbideak eta lurraldean diren toki, abere edo faunaren komunikatorako beste edozein bitarteko moztu behar denean, komunikazio elementu horiek berriz jarriko dira, obra egin baino lehen zegoen lurralde- eta ingurugiro-egitura ezertan murriztu gabe.

D) Ingurugiro Eraginaren Ebalazioan justifikatu beharko da baldintza horiek bete direla.

### 3. art.

Bi xedapen iragankor eta azken xedapen bat gehitu zaizkio Legearen testuari. Hona haien testuak:

Xedapen iragankorra:

1. A-15 autobidea.

1.1. Nafarroako Foru Parlamentuak Nafarroako Gobernuari baimena eta agindua ematen dio hilabeteko epean AUDENASA enpresa kontzesio-hartzaileari autobidea ustiatzeko emaniko administrazio-kontzesioa berreskuratzeko administrazio espedienteak hasteko.

Segurtasun eta arriskuak saihesteko arrazoiak dira, beste batzuen artean, A-15 Autobidearen administrazio-kontzesioa berreskuratzeko baime-naren eta enkarguaren oinarrian daudenak; urtebeteko epean kontzesio-hartzaileak akordiorik lortuko ez balu, arrazoi haiek aski izanen dira kontzesioa berreskuratzeko "onura publikokoa" dela deklaratzeko. Deklarazio horrek berekin ekarriko du aipatu kontzesioaren desjabetzapena.

Administrazio-kontzesioa berreskuratzeko kalteordain edo prezio bat izanen du; zenbateko hori AUDENASARI eska dakiokkeen pasiboaren adina-koa izanen da, kontuan hartuta Foru Ogasunak urteetan zehar enpresa horren defizitak ordaintzeko egin behar izan dituen diru-ekarpenak.

Nafarroako Gobernuak, halaber, AUDENASAKo kidea den aldetik, konpainia hori desegin dadila sustatuko du, administrazio-kontzesioa berreskuratu eta gero; izan ere, kontzesioaren ustiakuntza da enpresaren helburu soziala. Gero, konpainia jabe den ondasun eta aktiboak eman ditzala eskatuko du, halakorik izanez gero. AUDENASAREN desegite eta likidazio horren esparruan, Nafarroako Gobernuak behar diren neurriak jar daitezela sustatuko du AUDENASAKo langileen lan harremanak mantendu eta haien eskubideak erabat errespeta daitezen.

1.2. Nafarroako Gobernuak urtebeteko epean, A-15 autobidea errepide-sarearekin lotzeko proiektuak eginen ditu, gutxienez ondoko guneetan: Zuasti, Berriobeiti-Lotza, Imarkoain, Tiebas/Muru Artederreta (Urrozko errepidea), Gareserako sarbidea, Untzue, Barasoain-Garinoain, Tafalla (Zangozako errepidea), Falces, Villafranca, Cadreita eta Castejón.

1.3. Nafarroako Gobernuak AUDENASAREkin behin-behineko akordio bat sina dadin sustatuko du, doakotasuna hilabeteko epean ezar dadin autobidean. Foru Ogasunaren kargura ordainduko dira gastu horiek; Foru Ogasuna bera izanen da, gainera, AUDENASAREN finantza-gastuak ere

ordainduko dituena. Behin-behineko akordio honek administrazio-kontzesioa berreskuratzeko espedientea bukatu bitartean iraunen du.

#### 2. A-68 Autobidea.

2.1. Nafarroako Foru Parlamentuak Nafarroako Gobernuari baimena eta agindua ematen dio hilabeteko epean AUTOPISTAS VASCO-ARAGONESAS enpresa kontzesio-hartzaileari autobidea ustiatzeko emaniko administrazio-kontzesioa berreskuratzeko administrazio espedientea hasteko.

2.2. Nafarroako Gobernuak sei hilabetez behin emanen dio Foru Parlamentuari A-68 Autobidea ustiatzeko administrazio-kontzesioa berreskuratzeko administrazio-espedientearen berri, haren izapidaketak eskatzen dituen erabakiak har ditzan.

#### 4. art. Azken xedapen hau gehitu da:

Azken xedapena

Agindua ematen zaio Nafarroako Gobernuari sei hilabeteko epean Foru Parlamentuari igor diezaien eztabaidatzeko eta, hala bada, onesteko, Nafarroako bideak babestu eta hobetzeko plan bat.

## Foru Lege proposamena, pentsioen kopuruak lanbide arteko gutxieneko soldatarekin parekatzeko osagarriak jarri eta beste laguntza-prestazio batzuk hobetzeko

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko irailaren 13an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

"Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentuko Taldeak hurrengo Foru Lege proposamena aurkeztu du: pentsioen kopuruak lanbide arteko gutxieneko soldatarekin parekatzeko osagarriak jarri eta beste laguntza-prestazio batzuk hobetzeko.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Bozeramaileen Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

**Lehena.** Foru Lege proposamena, pentsioen kopuruak lanbide arteko gutxieneko soldatarekin parekatzeko osagarriak jarri eta beste laguntza-prestazio batzuk hobetzeko Nafarroako Parlamentuko Aldizkarian argitara dadin agintzea.

**Bigarrena.** Foru Lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 1999ko irailaren 14an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

## **Foru Lege proposamena, pentsioen kopuruak lanbide arteko gutxieneko soldatarekin parekatzeko osagarriak jarri eta beste laguntza-prestazio batzuk hobetzeko**

### ZIOEN AZALPENA

Gertaera lasgarri eta mingarria da, eta Estatu osoan agitzen dena: pentsio ez-kontributiboan eta Gizarte Segurantzaren beste pentsio askoren dotazioa ez da lanbidearteko gutxieneko soldataren mailara ere iristen; soldata horrek, gainera, pisua galdu du, Europako batez besteko soldatarekin konparatuta. 1980an, Espainiak Europako Kontseiluaren Gizarte Gutuna izenpetu zuenean, gure estatuko lanbidearteko gutxieneko soldata Europako batez bestekoaren % 47 zen. Gaur egun, aldiz, % 36 da.

Aipatu datuek agerian uzten dute Europarekiko urruntasuna, gizarte-arazoetan. Gizarte-babesaren indize gurea Europako Batasuneko batez bestekoaren ia sei puntu azpitik dago. Gure pentsionisten, gaur egun, erosteko ahalmen galera handia metatu dute; zera dakar horrek, alegia: badaezpadako iraupena pentsionisten erdia baino gehiagorentzat, eta batzuetan, pobrezia gorria.

Berehala konpondu behar da egoera hori; izan ere, Estatuko Gobernuak ez du gizartearen beharrezat hartu nahi izan, eta ez du pentsioen gehikuntza progresiboa aurreratu, errealitatea begibistakoa bazen ere. Datuen arabera, Estatu guztiko pentsionisten % 60k lanbidearteko gutxieneko soldataren azpiko kopuruak jasotzen ditu.

Elkartasunik gabeko eta bereizkeriazko egoera izateaz gain, gizarte-haustura ere areagotu egiten du. Hain zuzen ere, pobrezia horrek nagusiak edo adintsuak ukitzen ditu, eta oso zaila da justifikatzen ekonomi hazkundeko testuinguru batean, non egoera ekonomiko askoz hobea duten beste gizarte-maila batzuetakoei zerga-beherapena ezarri zaien, gizarte-ekitatea finantzatzeko dirusarrera publikoak gutxitzeaz batera. Jarrera hori, Konstituzioaren aurkakoa izateaz gain, justiziaren hatsapen oinarrikoenen kontrakoa ere bada.

Estatuaren ekimen faltak –Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalaren datuak aurrean bazituen ere–, eta justifikaziorik gabeko pobrezian bizi diren pertsonen benetako beharrezan sozialak bultzatu ditu autonomia erkidego batzuk zenbait neurri hartzera, eta beste batzuk Estatuko Gobernuari berehalako konponbidea bilatzeko erronka botatzera, beraien erkidegoetan pentsioak beraien kabuz igoko zituztelako mehatxupean.

Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalaren datuen arabera, 97.691 pentsionista zegoen Nafarroan aurtengo urtarrilean, eta batez besteko pentsioa hileko 80.000 pezeta zen. Hala ere, hogeita mila nafar adintsuk jasotzen du hileko 45.000 pezeta baino gutxiago, eta gure Komunitateko 24.767 alarguntsek hileko 54.829 pezetako pentsioa dute, batez beste: batez besteko orokorra baino askoz gutxiago. Datu ezin argigarriago eta kezkatzeko modukoa nahi izanez gero, hona: gure pentsionisten %60 baino gehiagok jasotzen du lanbidearteko gutxieneko soldata baino gutxiago.

Nafarroan pentsio ez-kontributiboak jasotzen dituzten 3.998 pertsonen egoera (1999ko abuztua) ere kontuan hartuz gero, egoera are gordinago agertuko zaigu. Izan ere, urteko 531.370 pezetana izendatu zaie guztiei, 37.955 pezetako 14 pagatan bananduta. Hutsaren hurrengo dira kopuru horiek, oinarri-oinarrizko beharrezaneiei ere aurre egiteko.

Estatuak, eskumen osoa izanik ere gai honetan, ez dio soluzioari ekin, eta egoera latza eratorri zaio Nafarroari, non adintsuen ia-ia % 65ek lanbidearteko gutxieneko soldata baino gutxiagorekin iraun behar duen. Egoera ezduina, inondik ere, eta lotsagarria gure Komunitate honentzat; izan ere, hogeita bat mila milioiko superabita atera baitu azken aurrekontu-ekitaldian, eta zerga-erreferentzia bat ere ezarri baitu, Foru Ogasunaren dirusarrerak murrizten dituen, eta, beraz, gizarte-orkarako politikei ekiteko ahalmen ekonomikoa ere gutxitzen duena.

Erantzuna emateko eta desoreka ekonomikoa zuzentzeko tenorean jarri gaituzte datuok; izan ere, gure adintsuen bizi moduari eta, askotan, irauteari berari ere eragiten baitiete. Beraz, pentsio kontributiboak eta ez-kontributiboak osatu eta hobetu behar ditugu. Nafarroako aurrekontuek gizarte-kohesioa hobetzeko tresna izan behar dute; orobat, aipatu taldeen oinarriko beharrezan aiseko direla bermatu, kontuan izanik, gainera, gure Komunitatearen gizarte- eta ekonomia-egoera, Estatuakoarena baino hobea baita alor askotan.

**Lehen artikulua** - Nafarroako Gobernuak, Nafarroako hurrengo Aurrekontu Orokorretatik hasita, osatu egingen ditu Foru Komunitatean jasotzen diren pentsio kontributibo eta ez-kontributiboan kopuruak, eta hauxe ahalbidetuko du:

A) Gutxieneko pentsio kontributiboan lanbidearteko gutxieneko soldatarekin parekatzea.

B) Pentsio ez-kontributiboan lanbidearteko gutxieneko soldataren % 75era iritsi dadila.

C) A eta B ataletan esaten diren neurriak 2.000eko urtarrilaren 1etik aitzina izanen dute eragina.

**Bigarren artikulua** - Foru Lege honetan jarri diren neurrien onura eskuratu ahal izateko, ezinbesteko baldintzak izanen dira:

A) Nafartasuna izatea, eta Foru Komunitatean egiazki bizi izatea.

B) Nafartasunik ez dutenek, hauxe egiaztatu beharko dute: Nafarroan egiazki bizi direla, hamar urteko antzinatasunarekin, gutxienez.

**Hirugarren artikulua** - 2.000 urtetik hasi eta bost urteko epean, gainerako laguntza-prestazioe-

tara hedatuko da hobekuntza ekonomikoa, lanbi-dearteko gutxieneko soldatarekin parekatu arte.

#### **Xedapen gehigarria**

Nafarroako Gobernuak erregelamenduz garatu beharko du Foru Lege hau, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hiru hilabeteko epean, gehienez ere.

#### **Azken xedapena**

Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta hurrengo egunean hartuko du indarra Foru Lege honek.

## **Oinarrizko irakaskuntzarako testu liburua arautzeko Foru Lege proposamena**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko irailaren 13an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentuko Taldeak oinarrizko irakaskuntzarako testu liburua arautzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Bozeramaileen Batzarra entzun ondoren, hona

#### **ERABAKIA**

**Lehena.** Oinarrizko irakaskuntzarako testu liburua arautzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkarian argitara dadin agintzea.

**Bigarrena.** Foru Lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 1999ko irailaren 14an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **Oinarrizko irakaskuntzarako testu liburua arautzeko Foru Lege proposamena**

#### **ZIOEN AZALPENA**

Espainiako Konstituzioak 27.4 artikuluan ezarri du “oinarrizko irakaskuntza derrigorrezko eta dohain” dela. Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorreko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoak (LOGSE), bere 5. artikuluan, ezarri du derrigorrezko lehen eta bigarren hezkuntzek osatzen dutela oinarrizko irakaskuntza, eta hori derrigorrezko eta dohain izanen dela. Gauza bera dio 8/1985 Lege Organikoak (LODE), bere 1. artikuluan.

Lege testu horietatik argi ateratzen da derrigorrezko irakaskuntzek ez dutela ikasleentzako inongo kostu ekonomikorik erakarri behar, ez eta ikasleen guraso edo tutoreei ere.

Derrigorrezko irakaskuntza emateko behar den gastua hainbat ataletan zatikatzen da: azpiegiturak, irakaskuntzakoak eta irakaskuntzaz kanpokoak; irakasleen eta irakasle ez diren langileen gastuak; azpiegitura guztien mantentze-gastuak; jantoki-gastuak eta eskola-garraiokoak; ikastetxeen eta gainerako hezkuntza-zerbitzuen funtzionamendu-gastuak eta hezkuntza-administrazioei dagozkienak (bulego-materiala, bibliografia, fotokopiak, hezkuntza-material suntsigarria, etab.); eta testu liburuak. Beste gastu batzuk ez dira aintzat hartu, hala nola ikasle bakoitza kiroletan ari zeko janzkiak, aipatu zerrendan sar bazitezkeen ere.

Egungo aurrekontuek lehen esandako gastu guztiak estaltzen dituzte, ia-ia, eta Nafarroako

ikastetxe pribatu guztietako oinarrizko irakaskuntza ere ordaintzen dute fondo publikoekin; aurrekontu orokorrekin, gainera, derrigorrezkoaren ondoko irakaskuntza ere ordaintzen da, Foru Komunitateko itunpeko ikastetxe pribatu guztietan, baina testu liburuak ez –eta ezinbesteko materiala dira derrigorrezko irakaskuntza kalitatearekin emateko–, familiek ordaintzen baitituzte. Horregatik, beraz, bidezko da testu liburuaren kostua diru publikoekin ordaintzearena arautzea Nafarroan, horixe baita Foru Lege honen xedea.

Legediak konparatuz gero, hainbat bide dago helburu berbera erdiesteko, alegia, derrigorrezko irakaskuntza ezinbestean jaso behar duten ikasleek ez dezatela inongo kostu ekonomikorik izan, ez beraiek, ez eta beraien gurasoek ere. Bide batzuk aipatze aldera:

Hezkuntza Departamentuak ikastetxeei ematea testu liburuak, ikastetxeek ikasleei urtero laga diezazkieten; testu liburuok aldiro-aldiro berrituko dira, galdu edo apurtu daitezke eta.

Ikasleen gurasoek erostea liburuak, eta urteroko errenta-aitorpenean desgrabatzea (bide hau errenta txikiagoak dituzten familien kalterako izan daiteke, ez baitute errentaren aitortpena egin beharrik).

Dituzten dirusarrerengatik errentaren aitortpenik egin beharrik ez duten familiei bekak ematea liburuak eros ditzaten; errentaren aitortpena egin beharra izanik, zerga-oinarria 4.000.000 pezeta baino gutxiago duten familiek, aldiz, PFEZaren aitortpenean gastutzat sar dezakete derrigorrezko irakaskuntzan ari diren seme-alaben testu liburuaren faktura osoa.

Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak eros ditzala testu liburuak, eta derrigorrezko irakaskuntzako ikastetxeetan matrikulatuta dauden ikasle guztiei –eta egoki iritzitako beste batzuei– eman diezazkiela, behin betikoz.

Lehen aipatu kasu guztietan, ordea, hezkuntza-kontzeptu horri aurre egiteak inbertsio-gastua dakar, eta Nafarroako Gobernuak ez du, gaur egunera arte, halakorik aurreikusi aurrekontuetan. Foru Lege honen helburua hau da: Konstituzioak eta 8/1985 eta 1/1990 lege organikoek emandako agindua betetzea, eta horri buruzko kontusail bat sartzea Nafarroako Aurrekontu Orokorretan.

Aipatu beharrezana kontuan harturik, Foru Lege honek indarreko legediaren hutsunea bete nahi du, eta Espainiako Konstituzioak eta Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorreko Lege

Organikoak (LOGSE) xedatua osatu, Nafarroako Foru Komunitateak testu liburuak eman diezazkien derrigorrezko irakaskuntzako ikasleei, matrikulatuta dauden ikasgaiak ikasi ahal ditzaten.

### **Lehen artikulua**

Oinarrizko irakaskuntzarako testu liburuak. Oinarrizko irakaskuntzarako testu liburutzat hartuko da argitalpen unitario oro, liburuki, faszikulu edo emanaldi batean zein batzuetan editatu den, ikusizko, ikusentzunezko edo entzunezko material osagarriekin zein gabe argitaratua, baldin eta izaera didaktikoa badu, eta derrigorrezko lehen eta bigarren hezkuntzetako ikasketa-planetan aurreikusi diren gaiak jorratzen baditu, eta, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuaren aurreko onespena edo homologazioa izanik, ikastetxeak irakas materialtzat hartu badu, kasuan-kasuan aplikatu daitezkeen indarreko legediarekin bat.

### **Bigarren artikulua**

1. Diru publikoekin ordaindutako ikastetxeetako testu liburuak, alegia, ikastetxe bakoitzak oinarrizko hezkuntzan irakasteko legeaz aukeratu dituen haiek, dohainik izanen dira aipatu irakaskuntzan ari diren ikasleentzat.

2. Erregelamenduz zehaztuko dira aipatu ikastetxeek eta oinarrizko hezkuntzako ikasleen gurasoek edo tutoreek erabili behar dituzten prozedurak, Foru Lege honen xede diren testu liburuak dagokion ikasturtea hasi baino lehen eduki ahal izateko.

### **Hirugarren artikulua**

1. Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legeak hauxe sartuko du aurrekontu-ekitaldi bakoitzean: dagokion ikasturteko oinarrizko hezkuntzako ikasleen testu liburuak finantzatzeko adina kontusail.

2. Nafarroako Administrazio Publikoen Kontratuari buruzko 10/98 Foru Legearen arabera erosiko ditu Foru Administrazioak Foru Lege honen xede diren ikasmaterialak.

### **Xedapen gehigarria**

Foru Lege hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta, gehienez, sei hilabeteko epean garatuko da erregelamenduz, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak proposatuta, eta Nafarroako Eskola Kontseiluak bere txostena eman ondoren.



**Xedapen indargabetzailea**

Indargabetu egiten da Foru Lege honek xedatuari kontra egiten dion maila bereko ala apalago-ko arau oro.

**Azken xedapena**

Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra Foru Lege honek.

---

---

**E SAILA:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **Mozioa, 2000. urteko uztailaren 25a Nafarroako Foru Komunitatean jai ofiziala izan dadin**

### *«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA» PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA*

«Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: “Mozioa. Horren bidez 2000. urteko uztailaren 25a Nafarroako Foru Komunitatean jai ofiziala izan dadin”.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko irailaren 13an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztaibada eta bozketa Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barne Batzordean burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko Taldeek eta Foru Parlamentariok emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1999ko irailaren 14an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

#### **MOZIOAREN EDUKIA**

Juan José Lizarbek, “Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko bozeramaileak, Biltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluan eta ondokoetan xedatua aplikatuz, ondoko mozioa aurkeztu du dagokion batzordean eztabaida

dadin: Mozioa, 2000. urteko uztailaren 25a Nafarroako Foru Komunitatean jai ofiziala izan dadin.

Mozioaren zioa

Uztailaren 25eko jaiak esanahi berezia du Nafarroan, eta gure Komunitatean erroturiko tradizioen parte bat da.

2000. urteko egutegiak uztailaren 25a jaiegun deklaratzeko erabakia hartzera bultzatuko duten hainbat berezitasun ditu.

Hori dela eta, Parlamentuko talde sozialistaren iritziz, beharrezkoa da Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzea 2000. urteko egutegi ofiziala onesteko garaian Parlamentuaren erabaki hau kontuan hartu eta uztailaren 25a jaiegun deklara dadin, gogoan harturik jai hori Erriberan eta Tuteran zeinen errotuta dagoen eta aurreko urteetan herritarrek adierazitako eskaria bete beharra dagoela.

Mozioaren testua

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 2000. urteko egutegi ofizialean uztailaren 25a jaiegun ofiziala izan dadin Nafarroako Foru Komunitate osoan.

Iruñean, 1999ko uztailaren 23an.

Bozeramailea: Juan José Lizarbe.

---

---

**F Sailsa:**  
**GALDERAK**

---

**A-15 autopista pribatizatzeko asmoari buruzko galdera***FÉLIX M<sup>a</sup> TABERNA MONZON FORU PARLAMENTARIO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko irailaren 13an egindako bilkuran, Félix M<sup>a</sup> Taberna Monzón Foru Parlamentario jaunak A-15 autopista pribatizatzeko asmoari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko irailaren 14an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**GALDERAREN EDUKIA**

Félix M<sup>a</sup> Taberna Monzónnek, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentuko Taldeko Foru Parlamentarioak, Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Jakina da A-15 autobidearen sozietate kudeatzailean Estatuko Administrazioak % 50eko parte-hartzea duela, E.N.A.ren (Empresa Nacional de Autopistas) bitartez.

Berriki, Estatuko enpresa publiko horrek agertzera eman du bere akzioen zati bat pribatizatzeko

ko asmoa duela. Aintzat harturik A-15 autobidea zeinen garrantzitsua den Nafarroako komunikazioetarako, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentuko Taldeak uste du une egokia dela Nafarroako Gobernuak Audenasaren kapitalaren gehiengoa eskuratzeko.

Duela gutxi izandako inbestidura prozesuan, sinatzen duenak Nafarroako Gobernuko lehendakariari galdetu zion ea zer asmo zituen Audenasaren akzioen % 50ren jabe den E.N.A.ren iragarritako pribatizazioaren aurrean. Orduan erantzunik eman ez zidanez, ondoko galderari erantzuteko eskatzen diot:

1. Ba al daki Nafarroako Gobernuak hemendik gutxira E.N.A. pribatizatuko dela?

2. Izan al du Nafarroako Gobernuak bilerarik -formalki nahiz informalki- Estatuko administrazio zentralerako edo E.N.A.ko ordezkariekin? Baiezkoan, gaiak zehaztu.

3. Prest al dago Nafarroako Gobernuak E.N.A.k Audenasan dituen akzioen % 50 erosteko?

Iruñean, 1999ko abuztuaren 18an.

Foru Parlamentarioa: Félix M<sup>a</sup> Taberna Monzón.

## **Martzilla, Funes eta Villafrancako dermioetan zentral hidroelektriko bat sortzeari buruzko galdera**

*FÉLIX M<sup>a</sup> TABERNA MONZON FORU PARLAMENTARIO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko irailearen 13an egindako bilkuran, Félix M<sup>a</sup> Taberna Monzón Foru Parlamentario jaunak Martzilla, Funes eta Villafrancako dermioetan zentral hidroelektriko bat sortzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko irailaren 14an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **GALDERAREN EDUKIA**

Félix M<sup>a</sup> Taberna Monzónnek, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentuko Taldeari atxikitako Foru Parlamentarioak, Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

“Energia Hidroeléctrica de Navarra” enpresak Marcilla, Funes eta Villafrancako lurraldeetan zentral hidroelektriko bat eratzeko proiektua egin du. Hori dela eta ondokoa jakin nahi dugu:

1. Prozedura administratiboaren zein fasetan dago proiektua? Zein urrats daude emateko eta zein eman dira jada?

2. Zer iritzi du Nafarroako Gobernuak proiektuari buruz, ezagututa, gainera, 1.500 alegazio baino gehiago aurkeztu direla Ebroko Ur Konfederazioan?

3. Bildu al dira Nafarroako Gobernuako arduradunak ukitutako udalekin? Baiezkoan, zein ondorio izan dira? Ezezkoan, ba al du biltzeko asmorik?

Iruñean, 1999ko irailaren 1ean.

Foru Parlamentarioa: Félix M<sup>a</sup> Taberna Monzón.

## **Buruaz beste egiteko jokaerei eta adimen gaixoen atentzioari buruzko galdera**

*M<sup>a</sup> ISABEL ARBONIES BERMEJO FORU PARLAMENTARIO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko irailearen 13an egindako bilkuran, M<sup>a</sup> Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentario andreak buruaz beste egiteko jokaerei eta adimen gaixoen atentzioari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko irailaren 14an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **GALDERAREN EDUKIA**

María Isabel Arboniés Bermejok, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentuko Tal-

deari atxikitako Foru Parlamentarioak, Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Buruaz beste egiteko jokaerak (buruaz beste egiteko saioak eta burututako suizidioak) Nafarroan, adimen asalduak dituzten pertsonen egindakoak dira kasuen % 53an. Nabarmena da, bestalde, nerabegaroko suizidioen gorakada. Egun, 14 urtetik beherako haurren % 8k depresioa izan du. Badakigu, halaber, Itxaropenaren Telefonora egindako dei guztien % 30 arazo psikikoengatik izaten direla.

Joan den hamarkadako datuei erreparatuta, aise ikusten ahal da gora egin dutela burututako suizidioek. Gutxi dakigu oraingo hamarkadako bilakaerari buruz, eta ezer ere ez dakigu ezer

buruaz beste egiteko huts egindako saioei buruz edo buruaz beste egiteko bestelako jokaerei buruz. Askotan, adimen gaixoen familiarterkoak kexu dira saioak behin eta berriz gertatzen direlako ospitaletako unitateetatik atera eta berehala; gainera, gaixoak behar bezala bereoneratu gabe eta hartzeko botika gehiegirekin ateratzen direla esaten dute.

Osasun Kontseilariak eta Gizarte Ongizate Kontseilariak biek ala biek aitortu dituzte Nafarroan adimen gaixoen bizi dituzten gabeziak. Egiaz-tatu daitekeen egitate da gero eta adimen gaixo gehiago dagoela. Adimen gaixotasuna eta bereziki depresioa –zeinaren arriskurik handiena nor bere burua hiltzea baita– dira osasungintzak dato-rreren mendean izanen dituen erronkak.

95, 96, 97 eta 98. urteetako Adimen Osasunari buruzko Oroit-idazkiek osasun baliabideak gero eta gaitortuagoak daudela erakusten dute (egoera hori 1995eko Adimen Osasunari buruzko Oroit-idazkian ere deskribatuta zegoen); izan ere, garrantzeke daude oraindik gizarte baliabideak eta familiari laguntza emateko baliabideak. Gabezia horiek berekin ekartzen dute gaixo kronikoak behin eta berriz gaixotzea eta haien familiak estres handiarekin bizitzea. Familiek, hori dela eta, tratamendu banakakoagoa eta integrala eskatzen dute.

Oroit-idazkietako datuek jarduerak gora egin duela eta Nafarroako Adimen Osasunaren Sareko osasun baliabideak gaitortuta daudela adierazten dute, batez ere gaixo larrien ospitaleratze unitateei dagokienez. 1995ean 890 ospitaleratze izan ziren guztira; 1998an, ordea, 1.277 izan ziren ospitale publiko eta pribatuetan sartu ziren gaixoak.

Adimen osasuneko kontsulten kopurua:	95	96	97	98
	82.204	84.000	84.665	89.737

Ospitale-unitateetan egonaldi labur baterako izandako ospitaleratzeak	95	96	97	98
Nafarroako Ospitalea	467	382	419	382
Bideako Ama Birjina	341	507	441	460
O. publikoak, guztira	808	889	860	842
Unibertsitate Klinika				118
Aita Menni	60	84	160	222
N.S. del Pilar (Elizondo)	22	25	50	95
O. pribatuak, guztira	82	109	210	435
Urteko ospitaleratzeak, guztira	890	998	1.070	1.277

Koadroak argi erakusten du gora egin duela ospitale pribatuetan ospitaleratu diren gaixo larrien kopuruak; izan ere, ospitale publikoen betetze-indizea % 98/99 izan baita, eta gaixo bakoitzaren batez besteko egonaldiak behera egin baitu, ondoko koadroan agertzen dugun bezala:

Urtea	Aita Menni			N.S. Pilar (Elizondo)		
	Ospitale- ratzeak	Egonal- diak	Batez beste- ko egon.	Ospitale- ratzeak	Egonal- diak	Batez beste- ko egon.
95	60	2.437	40,6 d.	22	2.231	41,8 d.
96	84	3.089	36,7	25	1.337	53,8
97	160	5.048	31,5	50	2.399	47,9
98	222	5.508	24,8	95	2.861	30,1

Hori dela eta, ondokoak jakin nahi ditut:

1) Nafarroan bere buruaz beste egin duten pertsonen kopurua, azken hamarkadan (1990-1999), sexuaren eta adinaren arabera.

2) 1990-1999 aldian Nafarroan buruaz beste egiteko izan diren saioen kopurua, sexuaren eta adinaren arabera; horietan, adierazi zenbat diren buruaz beste egiteko lehen saioak eta zenbat behin baino gehiagotan saiatu direnak.

3) Adimen gaixotasunekin loturiko zenbat suizidio kasu eta suizidio ahalegin izan dira Nafarroan 1990-1999 aldian.

4) Egin al da azterketarik Nafarroan buruaz beste egiteko jokaeretan eragina duten arazoei buruz.

5) Nolako laguntzak jasotzen dituzte Nafarroako familiek beren familiarterkoek buruaz beste egiteko ahaleginak egin eta gero?

6) Adimen gaixoen familiarterkoek gaixoei botika gehiegi ematen zaizkielako etengabe egiten dituzten kexuak direla eta,

A) Egin al da gai honi buruzko azterketarik?

B) Osasun Kontseilaritzaren iritziz, ba al du loturarik adimen gaixoen ospitaleko egonaldiak laburtzearekin eta gizarte eta osasun baliabideen eskasiarekin?

C) Esan al daiteke une honetan botikak ari direla betetzen adimen gaixo kronikoen gizarte eta osasun baliabideen gabezia?

7) Datuei erreparatuta, etengabe jaisten ari da gaixoen ospitaleratze unitateetan egoten diren aldiak, batez ere ospitale pribatuetan. Ez al zaio jaitsiera hori zor gero eta gaixo gehiago larrientzako unitateetan ospitaleratzeari edo berriz ospitaleratzeari?

8) Zenbat langile (psikiatrak, psikologo klinikoak, erizainak, gizarte-langileak, terapeuta okupazionalak, laguntzaileak eta abar) dituzte Bideko Ama Birjina Ospitaleak, Nafarroako Ospitaleak, Unibertsitate Klinikak, Aita Menni Ospitaleak eta N.S. del Pilar Ospitaleak adimen gaixoen egonaldiei aurre egiteko? Ba al dago ezarritako moduluaren bat gaixo larrien ospitaleratze unitateetako beharrei erantzuteko?

9) Azken urte hauetan gaixo larrien unitateak gaudituta egon dira; beste aldetik, Iruñean biltzen dira gehienak. Bi inguruabar horiek direla eta,

A) Zer neurri hartu behar ditu Nafarroako Gobernuak egonaldi laburreko ospitaleratzeetarako plaza gehiago egon dadin?

B) Nola balioesten du Osasun Departamentuak ospitale-unitate pribatuetan 95etik 98ra % 530 igo izana ospitaleratutako adimen gaixoen kopurua?

C) Aurreikusi al da Adimen Osasunaren sare publikoa zabaltzea Erribera aldera adimen gaixoen egonaldi laburreko ospitaleratzeetarako ospitale-unitate bat jarritz?

Iruñean, 1999ko irailaren 2an.

Foru Parlamentarioa: M<sup>a</sup> Isabel Arboniés Bermejo.

---

## Nafarroako Gobernuak sozietate publikoekin eta parte hartutako enprekin dituen harremanei buruzko galdera

*JOSE MARIA AIERDI FERNANDEZ DE BARRENA FORU PARLAMENTARIO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko irailaren 13an egindako bilkuran, José María Aierdi Fernández de Barrena Foru Parlamentario jaunak Nafarroako Gobernuak sozietate publikoekin eta parte hartutako enprekin dituen harremanei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko irailaren 14an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **GALDERAREN EDUKIA**

José María Aierdi Fernández de Barrenak, "EA-PNV" Parlamentuko Taldeari atxikitako Eusko

Alkartasunako Foru Parlamentarioak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondo-koek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du erantzun diezaioten:

1. Nafarroako Gobernuko departamentuak hartuta, zein dira Foru Administrazioak partaidetza duen sozietate publiko eta enpresak?

2. Zein dira departamentuek aipatu sozietate publiko eta enpresetan dauzkaten ordezkariak?

3. Zein ordainsari jasotzen dute, halakorik bada, pertsona horiek sozietate eta enpresa horietan egiten duten ordezkari lanarengatik?

Iruñean, 1999ko irailaren 8an.

Foru Parlamentarioa: José María Aierdi Fernández de Barrena.

---

**G Saila:**

**DEIALDIAK, IRAGARKIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren 1999ko abuztuaren 3ko erabakia.  
Haren bidez, Nafarroako Parlamentuko egoitzak garbitzeko zerbitzua  
esleitu da**

Nafarroako Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko ekainaren 16ko 10/1998 Foru Legearen 97. artikuluan xedatua betez, aditzera ematen da Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 1999ko abuztuaren 3an hartutako erabakiaren bidez ondoko kontratua esleitu dela:

Kontratuaren xedea: Nafarroako Parlamentuko egoitzak garbitzeko zerbitzua.

Prezioa: 11.794.717 pezeta.

Epea: urtebete; luzatu ahal izanen da.

Esleipen-hartzailea: EULEN, S.A.

Iruñean, 1999ko irailaren 3an.

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués.

---

---

**H Saila:**  
**BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK**

---

**190/1999 Foru Dekretua, ekainaren 7koa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko irailaren 13an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**Lehena.** 190/1999 Foru Dekretua, ekainaren 7koa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena, berresten ote den Osoko Bilkuraren esku jartzea. Erregelamenduko 88. artikulua araberara, osoko eztabaida izanen du.

**Bigarrena.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 1999ko irailaren 14an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**190/1999 Foru Dekretua, ekainaren 7koa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena**

Estatuak eta Nafarroako Foru Komunitateak 1990eko uztailaren 31n sinatutako Ekonomi Hitzarmenaren 27. artikulua ezartzen duenaren arabera, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ordainarazpenean Nafarroak aplikatuko ditu Estatuaren lurraldean unean-unean indarra duten oinarritzko printzipio, funtsezko arau eta arau formal berberak.

Bestalde, indarra duen Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 11ko 24/1985 Foru Legearen bigarren xedapen gehigarriak baimena ematen dio Nafarroako Gobernuari, Ekonomi Hitzarmena Zeharkako Ezarpenaren erregimen berriari Egokitzeko Akordioan ezarritakoa bete ahal izateko beharrezkoak diren arauak eman ditzan. Akordio horren aipamena ulertu behar da Ekonomi Hitzarmen berriari egina bezala horrek indarra hartu eta gero, zeinek espreski indarrik gabe uzten baitu aipatu egokitzapena onetsi zuen maiatzaren 5eko 18/1986 Legea.

66/1997 eta 9/1998 Legeek Balio Erantsiaren gaineko Zerga arautzen duen Legearen zenbait gai erregimen arruntean aldatu zituzten, Nafarroako araudian sartu zirenak urtarrilaren 19ko 5/1998 Foru Dekretuaren bidez. Ez ziren aldatu erregimen erraztuari dagozkion gaiak ez eta erregimen berezi desberdinak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zenbatespen objektiboaren erregimenarekin koordinatzeari buruzkoak ere.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren esparruan erregimen berezi horiek koordinatzeko arauak eman direlarik, bidezkoa da Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legearen koordinaziorako arau zehatzak jartzea, orain arte erregimen berezi erraztua aldatu gabe.

Horri dagokionez, 57. artikuluko 8. idazatian aldatu da bost urteko epe hura, zeinetan jarduera ekonomikoaren hasiera baino lehenago jasandako kuoten kenkariaren erregimenari atxiki zaizkion subjektu pasiboek ezin atxikiko diren erregimen berezi zenbaitetara, hiru urteko epea ezarri delarik ukapenaren epe orokorrari egokitzeko.

66. artikuluan xedatzen denez, eragiketen bolumenaz ezarritako kontzeptua Zergari buruzko Foru Legearen ondorio guztietarako aplikatuko da.

67. artikuluan erregimen berezi erraztua Balio Erantsiaren gaineko Zergaren gainerako erregimenekin koordinatzeko beste sistema bat ezarri da, bai eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zenbatespen objektiboaren erregimenarekin koordinatzeko ere.

Azkenik, 69. artikuluan nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzari buruz koordinatzeko beste sistema bat ezarri da.

Hori horrela izanik, beharrezkoa da, aipatu xedapen gehigarriaren bigarren lerroaldean aurreikusitakoari jarraikiz, Nafarroan behin-behineko indarra izanen duten arauak Foru Dekretu bidez ematea, harik eta Parlamentuak behin beti-



koz onesten dituen arte. Horiek onetsi eta hamar eguneko epean Parlamentura igorri behar dira.

Horrenbestez, Ekonomi eta Ogasun kontseilariak proposaturik, eta Nafarroako Gobernuak mila bederatzehun eta laurogeita hemeretziko ekainaren zazpiko bilkuran hartutako erabakiari jarraikiz.

#### DEKRETATU DUT:

**Artikulu bakarra.** Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legearen aldaketa.

Lehenbizikoa.- Ondorioak 1999ko apirilaren 6tik aitzinera izanen dituelarik Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legearen 17.1.14. artikuluko n) letra honela idatzirik geldituko da:

“n) Kudeatu eta gordailatzea Inbertsio kolektiboko Erakundeak, administrazio erregistro berezietan baimendu eta erregistratutako sozietateek kudeaturiko Kapital- Arriskua Entitateak, Pentsio Fondoak, Hipoteka Merkatuaren Erregulaziokeenak, Aktiboen Titulizaziokeenak eta Jubilazio Taldeak, beraien legeria berariazkoaren arabera eratuak direnak”.

Bigarrena.- Ondorioak 2000ko urtarrilaren 1etik aitzinera izanen direlarik, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legearen ondoko artikulua honela idatzirik geldituko dira:

Bat.-47. artikulua.

"47. artikulua. Enpresa edo lanbide jardueraren sektore bereiztuetako kenkariaren erregimena.

1. Enpresa edo lanbide jardueraren sektore bereiztuetan ekonomia jarduerak burutzen dituzten subjektu pasiboek, horietako bakoitzeko kenkariaren erregimena aplikatu beharko dute kasu bakoitzean.

Hainbanaketa bereziaren araua aplikatu ahal da Foru Lege honen 9. artikuluko 1. idazatik c) letra, a') eta c') letretan xedatutakoa aplikatuz zehaztutako enpresa edo lanbide jardueraren sektore bereiztu bakoitza kontuan hartu gabe.

Lege honen 9. artikuluko 1. idazatik c) letra, b') letretan xedatutakoa aplikatuz zehaztutako jardueraren sektore bereiztuei dagozkien kenkari erregimena, nolahi ere, nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzari eta baliokidetasunaren errekaruari buruzko erregimen erraztuentzat Foru Lege honetan aurreikusitakoaren menpe egonen dira.

Jarduerako sektore bereiztu batzuetan amankomunean erabiliak izateko ondasun edo zerbi-

tzuen eskurapen edo inportazioak egiten direnean, Foru Lege honen 50. artikuluko 2. eta hurrengo zenbakietan ezarritakoa izanen da aplikatzekoa, eskurapen edo inportazio horietan jasandako kuotei buruz aplikatzekoa den kenkariaren portzentaia zehazteko. Horretarako kasuan kasuko sekore bereiztuetan egindako eragiketak hartuko dira kontutan.

Aurreko lerroaldean aipatzen den portzentaia kalkulatzeko, nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzari edo baliokidetasun errekaruari buruzko erregimen berezietan sartutako eragiketek ez dute kenkarirako eskubiderik sortzen, ezta erregimen erraztukoek ere, kenkariaren portzentaia Foru Lege honen 68. artikuluko 5. zenbakiaren 4garren idazatian jasotzen diren ez bezalako ondasunei aplikatu behar zaienean.

2. Administrazioak baimena ematen ahalko du subjektu pasiboaren enpresa edo lanbide jarduerako sektore bereiztuetan kenkari erregimen bera aplika dadin, Foru Lege honen 9. artikuluko 1. idazatiaren c) letretako a') letretan ezarritakoa aplikatuz baizik zehaztu ez diren horietan.

Baimenak ez du eraginik izanen kenkari erregimen amankomunaren aplikazioagatik kengarri diren kuoten zenbateko osoa, sektore bereiztu bakoitzeko kenkariaren erregimena elkarrengandik bereizita aplikatetik izan litekeena baino ehuneko 20 gehiago den urtean.

Emandako baimenak hurrengo urteetan ere izanen du indarra bertan behera uzten ez deino edo subjektu pasiboak uko egiten ez dion artean.

Erregelamendu bidez zenbaki honetan aipatzen diren baimenak lotu behar dituzten baldintzak eta prozedura ezarriko dira.

Bi.-57.8 artikulua.

"8. Artikulu honetako 5. zenbakian arautzen diren kenkariaren aplikazioa eskatzen duten subjektu pasiboek, kenkari horiek ukitzen dituzten ondasun edo zerbitzuak erabiltzen diren ekonomia jarduerengatik, ez dute hartzen ahalko erregimen berezirik (errazturik zein nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzakorik), jarduera horien hirugarren urte naturala bukatu arte.

Aurreko lerroaldean ezarritakoaren aplikazioak eta erregimen bereziei egindako ukoak balio bera izanen dute.

Zenbaki honetan xedatutakoa ez zaie aplikatu Foru Lege honetako 68. artikuluko 5. zenbaki-ko 3. idazatian bildu ondasun eta eskubideei”.

Hiru.-66. artikulua.

“66. artikulua. Eragiketen bolumena zehaztea.

1. Foru Lege honetan ezarritakoaren ondorioetarako, eragiketen bolumena izanen da subjektu pasiboak urte naturalean egindako ondasun emaldien eta zerbitzu prestazioen zenbatekoa osoa, zergatik salbuetsiak daudenak barne, baina Balio Erantsiaren gaineko Zerga bera eta, halakorik balitz, baliokidetasun errekarqua eta hainbesteko konpentsazioa salbu.

2. Eragiketak burutuzat hartuko dira, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren sortzapena gertatzen denean edo gertatu denean.

3. Eragiketaren bolumena zehazteko ez dira kontutan hartuko:

1go. Ondasun higiezin aldian-aldiko emanaldiak.

2garren. Eskualdatzaileari dagokionean inbertsiokotzat hartzen diren ondasunen emanaldiak, Foru Lege honen 54. artikuluan ezarritakoarekin bat.

3garren. Foru Lege honen 17. artikuluko 1. zenbakiaren 14garren idazatian aipatzen diren finantza eragiketak, baita zergatik salbuetsirik ez daudenak ere, subjektu pasiboaren enpresa edo lanbide jardueran ohizkoak ez direnean.”

Lau.-67. artikulua.

“67. artikulua. Erregimen erraztua.

1. Erregimen erraztua pertsona fisikoak diren subjektu pasiboak eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari dagokionean errentak esleitzeko erregimenean dauden erakundeei, arauetan aurreikusitako jarduerak egiten eta baldintzak biltzen badituzte, erregelamendu bidez ezartzen den bezala hari uko egiten ez badiote.

2. Erregimen erraztuaren bidez ezin ordainduko dute zerga ordaindu ezein jarduera ekonomikatik ondoko hauek:

1.-Erregimen erraztuan bildu ez diren jarduera ekonomikoetako batean ari diren subjektu pasiboak, salbu eta jarduera horiek nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzari edo baliokidetasun errekarquari buruzko erregimen berezietan lotzen bazaizkie. Hala ere, subjektu pasiboak erregelamendu bidez zehaztutako beste jarduera batzuk egitea ez da erregimen berezi erraztutik kanpo geldituko.

2.-Burutzen dituzten jardueretako edozeinetan, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zenbatespen objektiboa aplikatzeari uko egin edo horretatik baztertuta gelditu diren subjektu pasiboak.”

Bost.-68. artikulua

“68. artikulua. Erregimen erraztuaren edukia.

1. Kapitulu honetan arautzen den erregimen berezia ezartzeko, indize edo modulu bidez, Balio Erantsiaren gaineko Zergako kuoten zenbatekoa eta, halakorik balitz, subjektu pasiboek erregimen berezia aplikatzeko deneko urte natural bakoitzean ordaindu beharreko baliokidetasun errekarquaren zenbatekoa zehaztuko da.

2. Aurreko zenbakian aipatzen diren indize edo moduluak, baita horiek konputatzeko jarraibideak ere, Ekonomi eta Ogasun Departamentuak ezarriko ditu ekonomia sektore edo enpresa jarduera bakoitzerako.

3. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren zehar-kako zenbatespenean, kontutan hartuko dira, batik bat, erregimen errazturako ezarritako indize eta moduluak, hari uko egin dioten subjektu pasiboak izanez gero.

4. Aurreko 2. zenbakiak aipatzen dituen modulu edo indizeen izkutatze edo faltsukerian erortzen diren subjektu pasiboak, erregimen erraztua aplikatetik sortzen diren tributu kuota osoak eta behar diren zehapen eta berandutza korrituak ordaintzera beharturik egonen dira.

5. Aurreko 1. zenbakian adierazitakoari jarraikiz ordaindu beharreko kuoten zenbatekoari erantsiko zaizkio ondoko eragiketetan sortutako kuotak:

1.- Komunitate barneko ondasun eskurapenak.

2.- Foru Lege honek 31. artikuluko 1. zenbakiaren 2. idazatian aipatzen dituen eragiketak.

3.- Foru Lege honek 6. artikuluko 2. zenbakiko a) eta b) letretan aipatzen dituen eraikinen emanaldiak, eta orobat, aktibo ez-materialen eskualdaketak.

Era berean, aurrez adierazi den sartu beharreko kuoten zenbatekotik, Foru Lege honen VII. Tituluan aurreikusitakoari jarraikiz, 3. idazatian aipatu ondasunak eskuratu edo inportatzean ordaindu edo jasandako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren zenbatekoa kendu ahalko da, erregelamendu bidez ezarritako moduan.

6. Erregimen erraztu hori erregelamendu bidez arautuko da eta hor sartzen diren subjektu pasiboek bete beharreko eginbehar formal eta erregistrokoak zehaztuko dira.

Sei.-69. artikulua.

“69. artikulua. Aplikazio esparru subjektiboa.

1. Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzari buruzko erregimen berezia kapitulu honetan azal-

du baldintzak betetzen dituzten nekazaritza, oihangintza, abeltzaintza edo arrantza sektoreetako ustiapenen titularrei aplikatu ahalko zaie, hari uko egin ez badiote, beti ere.

Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzari buruzko erregimen bereziari uko egiteak, interesatuak kontrakoa erabakitzen ez baldin badu behintzat, bere ondorioak sortuko ditu, beti ere, gutxienez hiru urteko epearen barrenean.

2. Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzari buruzko erregimen berezitik at geldituko dira:

1go. Merkataritza elkarteak.

2garren. Kooperatiba sozietateak eta eraldakuntzarako nekazaritza sozietateak.

3garren. Azkeneko urtean erregelamendu bidez ezarritako zenbatekotik goitiko eragiketa bolumena izan duten subjektu pasiboak.

4garren. Zernahi jarduera ekonomikotan Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zenbatespen objektiboaren erregimena aplikatzeari uko egin dioten subjektu pasiboak.

5garren. Erregimen erraztua aplikatzeari uko egin dioten subjektu pasiboak.

3. Aurreko 2. zenbakiko 3. idatzian aurreikusitako eragiketen bolumenaren muga gainditzeagatik erregimen berezitik at gelditu diren subjektu pasiboek muga hori hurrengo urteetan gainditzen ez badute, nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzari buruzko erregimen berezian sartuko dira, non ez dioten sartzeari uko egiten."

### **Xedapen gehigarria**

Foru Dekretu honen arauak harik eta Nafarroako Parlamentuak onetsi arte behin-behinekoak izanen dira.

### **Xedapen iragankorra**

2000. urtean aplikatuko diren Balio Erantsiaren gaineko Zergaren nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzari buruzko erregimen berezi erraztuak, zenbatespen objektiboaren erregimena eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zuzeneko zenbatespenaren erregimen erraztua.

1. 2000. urterako nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzari buruzko erregimen berezi erraztuak aplikatzeari uko egiterik, eta orobat, ondorioak sortu behar dituen ekitaldi berebetean atzera egiterik izanen da, 2000ko martxoaren 31 arte, Foru Agindu hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik aitzina.

Aurreko leerroaldean xedatutakoa ulertu behar da Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamenduko 22. artikuluko 1. zenbakiko hirugarren leerroaldean aurreikusitakoa galarazi gabe.

Erregimen berezi erraztua edo nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzari buruzkoa aplikatzeari uko egiten dioten subjektu pasiboek atzera egiterik izanen dute zenbaki honen lehenbiziko leerroaldean adierazitako epe horretan berean, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamenduko 22. artikuluko 1. zenbakian aurreikusitako epea akitu ez bada ere.

Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren erregimen berezia aplikatzeari uko egin dioten subjektu pasiboek, adierazitako epean atzera egiten ez badute, ez dute atzera egiteko aukera gehiago izanen aipatu ukoa egin zenetik hiru urte iragan arte.

2. 2000. urterako zenbatespen objektiboaren erregimenari uko egiteko 2000ko martxoaren 31 arteko epea izanen da Foru Agindua Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik aitzina.

Zenbatespen objektiboaren erregimenari uko egin dioten subjektu pasiboek uko horretan atzera egiterik izanen dute aurreko leerroaldean adierazitako epean berean, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduaren 33. artikuluko 3. idatzian ezarritako hiru urteko epea akitu ez arren.

3. 2000. urteko zuzeneko zenbatespen erregimenaren modalitate erraztuari uko egin egiteko aurreko zenbakian adierazitako epea izanen da.

Modalitate erraztu horri uko egin dioten subjektu pasiboek 2000rako atzera egin ahalko dute aurreko zenbakian adierazitako epean berean, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduaren 29. artikuluko 1. idatzian ezarritako hiru urteko epea akitu ez arren.

## **257/1999 Foru Dekretua, uztailaren 19koa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko irailaren 13an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**Lehena.** 257/1999 Foru Dekretua, uztailaren 19koa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena, berresten ote den Osoko Bilkuraren esku jartzea. Erregelamenduko 88. artikulua arabera, osoko eztabaida izanen du.

**Bigarrena.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 1999ko irailaren 14an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **257/1999 Foru Dekretua, uztailaren 19koa, Europako elkartekidea den beste Estatu batera doazen bidaiariak zergarik gabeko dendetan egindako ondasun entzegei dagokien Balio Erantsiaren gaineko Zergatik salbuestea indarririk gabe uzten duena**

Estatuak eta Nafarroako Foru Komunitateak 1990eko uztailaren 31n sinatutako Ekonomi Hitzarmenaren 27. artikulua ezartzen duenaren arabera, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ordainarazpenean Nafarroak aplikatuko ditu Estatuaren lurraldean unean-unean indarra duten oinarritzko printzipio, funtsezko arau eta arau formal berberak.

Bestalde, indarra duen Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 11ko 24/1985 Foru Legearen bigarren xedapen gehigarriak baimena ematen dio Nafarroako Gobernuari, Ekonomi Hitzarmena Zeharkako Ezarpenaren erregimen berriari Egokitzeko Akordioan ezarritakoa bete ahal izateko beharrezkoak diren arauak eman ditzan. Akordio horren aipamena ulertu behar da Ekonomi Hitzarmen berriari egina bezala horrek indarra hartu eta gero, zeinek espreski indarririk gabe uzten baitu aipatu egokitzapena onetsi zuen maiatzaren 5eko 18/1986 Legea.

Abenduaren 16ko 91/680/EE Zuzentarauak, barneko Merkaturako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren erregimen iragankorren erregulazioa

onetsi zuenak, zeina 1993ko urtarrilaren 1ean jarri baitzen abian, bere 28. artikuluko hamabigarren puntuan aitortzen du Estatu kideek ahalmena dutela, neurri batzuen barruan, Europako elkartekidea den beste Estatu batera, Elkarrekin barneko aireuntzi edo itsasontziko ibilaldiaren bidez joaten diren bidaiariak zergarik gabeko dendetan egindako ondasun entzegei, bai eta hegazkin nahiz itsasontzietan egiten direnei ere, dagokien Balio Erantsiaren gaineko Zergatik salbuesteko.

Salbueste horrek aldi baterako izaera zuen eta indarraldia 1999ko ekainaren 30ean akitu zaio.

Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legeak salbuespen horiek 22. artikuluko laugarren zenbakian sartu zituen.

Salbuespen haien indarraldia orain akitu denez gero premia handikoa da, Europako Elkarrekin harmonizatu beharrezkoak, agindu hura indarririk gabe uztea.

Guztiendako Araubidean dagoeneko emana da aipatu salbuespenen indargabetzea Balio Erantsiaren gaineko Zerga arautzen duen Legean sartzen duen araua, beraz, beharrezkoa da, aipatu xedapen gehigarriaren bigarren lerroaldean aurreikusitakoari jarraikiz, Nafarroan behin-behineko indarra izanen duten arauak Foru Dekretu bidez ematea, harik eta Parlamentuak behin betikoz onesten dituen arte. Horiek onetsi eta hamar eguneko epean Parlamentura igorri behar dira.

Horrenbestez, Ekonomi eta Ogasun kontseilariak proposaturik, eta Nafarroako Gobernuak mila bederatzehun eta laurogeita hemeretzi uztailaren hemeretzi bilkuran hartutako erabakari jarraikiz,

**DEKRETATU DUT:**

**Artikulu bakarra.** Ondorioak 1999ko uztailaren 1etik aitzinera izanen dituelarik, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legearen 22. artikuluko laugarren zenbakia indarririk gabe uztea.

#### **Azken Xedapena**

Foru Dekretu honetan bildutako araua behin-behinekoa izanen da harik eta Nafarroako Parlamentuak onetsi arte.

## **Nafarroako Parlamentuak izendatu behar dituen Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Gizarte Kontseiluko kideak hautatzeko arauak**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko irailaren 13an eginiko bilkuran, Bozeramaleen Batzarrari entzun ondoren, honako Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**Lehena.-** Nafarroako Parlamentuak izendatu behar dituen Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Gizarte Kontseiluko kideak hautatzeko arauak onartzea. Arau horien testua ondotik ematen dugu:

1go. Nafarroako Parlamentuak bost pertsona hautatuko ditu, Parlamentuko ordezkari izanik, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Gizarte Kontseiluko kide izan daitezen, abenduaren 9ko 20/1994 Foru Legeak ezarritakoaren arabera.

2garren. Betetzeko zenbat postu, hainbat hautagai aurkeztu ahalko du Parlamentuko Talde bakoitzak; betiere, aipatu Foru Legeak ezarritako baldintzak betetzen dituzten personak izan behar dira.

3garren. Biltzarreko Mahaiari bidalitako idatziz aurkeztuko dituzte hautagaiak Parlamentari Taldeek. Proposatutako hautagaiaren onarpena jaso beharko da idatzian. Proposaturiko hautagaiek aipatu Foru Legeko 6. artikuluan aipatzen diren bateraezintasunik ez dutelako erabaki ahal izateko, proposamen-idatziei zera erantsiko zaie: aipatu bateraezintasunik ez dutelako aitortpena edo egiaztatzea, hautagaiek egina.

4garren. Parlamentari Taldeek irailaren 27ko 9:30ak arte zango dute epea Gizarte Kontseiluko kide izateko hautagaiak aurkezteko.

5garren. Hautagaien-zerrendak aurkezteko epea bukatuz, Mahaiak proposatutako hautagaiek eskatutako baldintzak betetzen ote dituzten kalifikatzeari ekingo dio, eta ondoren, hala bada-gokio, hautagaiak aldarrikatuko ditu.

6garren. Gizarte Kontseiluko bost kideren hautaketa Biltzarreko Osoko Bilkuran egingo da, isilpeko bozketaren bidez.

7garren. Bozketa txartelen bidez egingo da, eta Parlamentari bakoitzak, zenbat postu bete behar diren, beste hainbeste izen paratu ahalko ditu txartelean.

8garren. Mahaiak emaitzak aztertuko ditu eta hautatutzat aldarrikatuko ditu botorik gehien lortu duten bost kandidatoak, baldin eta bakoitzak lortu badu, gutxienez, Biltzarreko kideen botuen erabaketeke gehiengoa.

9garren. Proposamena eraginkorra izango den edo ez jakiteko erabakiorrak diren berdinketak beste bozketa baten bidez ebazteko dira. Bozketa honetan boto kopuru berbera lortu dutenen artean aukeratu da. Berdinketak bere hartan segitzen badu, hurrenez hurreneko bozketak egingo dira boto kopuru berbera duten hautagaien artean berdinketa desegiten den arte.

10garren. Lehen bozketan bost postuak 8garren arauak ezartzen dituen baldintzen arabera ez badira betetzen, hurrenez hurreneko bozketak egingo dira bete gabe gelditu diren postu horiek bete ahal izan arte. Zenbat postu gelditu den bete gabe, beste hainbeste hautagaien izena paratu ahalko da txartelean hurrenez hurreneko bozketa hauetan. Lehendakariaren esku gelditzen da, inguruabarrek hala eskatzen badute, bozketa arrazoizko epe batez etetea. Hiru bozketa egin eta hautagai guztiak edo hautagaien bat hautatu gabe badago, hautabidea bukatutzat emango da, beste hautabide berri bati emango zaiolarik hasiera, bete gabe gelditu diren postuak betetzera mugaturik.

**Bigarrena.-** Arau hauek Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agintzea..

Iruñean, 1999ko irailaren 14an.

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués.





NAFARROAKO PARLAMENTUKO  
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA  
ORRIA

*Izen-deiturak* .....

*Helbidea* .....

*Telefonia* ..... *Hiria* .....

*P. K.* ..... *Probintzia* .....

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

<b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b> <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b> Urte bat..... 6.000 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 140 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 175 » .	<b>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b> <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b> «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
--	--